

# **LARRAULGO**

## **PLAN OROKORRA**

Idatzi hau bidaltzen dugu herritarrei jakinarazteko Larraulgo herria antolatzeko Plan Orokorra aztertzen hasi dela udalbatza. Etorkizunean herria nolakoa izango den, beharko dituen zerbitzuak, iharduera ekonomikoak jartzeko lurren kalifikapena aldatzea, lehen sektoreko iharduerak bultzatu, etxeak egitea (pribatuak, tasatuak, pisuak...), trafikoa erdigunetik ateratzea, eskola eraikitzea, lokal komertzialak,... aztertzen hasi gara.

Zuen proposamenak oso garrantzitsuak iruditzen zaizkigu. Idatzi honen azpian tarte bat utzi dugu zuen proposamenak idazteko eta ondoren udalaren buzoian (eliza atzeko buzoia berdean) sartu. Irailak 13 arte da epea.

Zuen proposamenak aztertu ondoren herri bilera baten deialdia egingo dugu Plan Orokorra aurkezteko eta zuen zalantzak argitzeko irailaren 26an.

Larraulen, 2009ko irailaren 4an

**PROPOSAMENAK:**